

HEZKUNTZA PROGRAMA

2024--25

tabakalera.eus



Ikasturte honetan Tabakaleratik eskola eta elkarteei zuzentzen dizuegun eskaintza gainezka dator; 2023-24 ikasturtean gurekin lan egin duzen guztiekin batera ikasi dugunarekin eta aurtengoan datorrenarekin gurutzatuta eta aktibatuta.

Ikasturte honetan Tabakaleratik eskola eta elkarteei zuzentzen dizuegun eskaintza gainezka dator; 2023-24 ikasturtean gurekin lan egin duzen guztiekin batera ikasi dugunarekin eta aurtengoan datorrenarekin gurutzatuta eta aktibatuta.

GAINEZKA EGITEA
Finkatutakoaren edo aurreikusitakoaren muga gainditzea

Badira aurrez finkatutako muga batzuk, ikusten eta adierazten ez badira ere hor daudenak, eta espazioak, harremanak eta ikaskuntzak baldintzatzen dituztenak, egunero. Eskubide kulturalen ikuspegitik, denok kabituko garen programa bat eta espazio batzuk eraikitzeko konpromisoa azpimarratu nahi dugu. Estereotipo eta praktika baztertzaillei gainez egitea, barrutik hasita, guztiak sartzeko. Arrarotasuna ez dadin arrotza gertatu.

Eihera kooperatibatik, Iñi Etxezarretak eta Leire San Martinek binarismoa gainditu eta bitarteak modu bizigarri eta zoriontsu batean habitatzera gonbidatzen gaituzte. Gabriel Chaile artistarekin, geldoenaren erritmora lan egitearen aldeko apostutik ikasi nahi dugu.

Ikasturte honetan Tabakaleratik eskola eta elkarteei zuzentzen dizuegun eskaintza gainezka dator; 2023-24 ikasturtean gurekin lan egin duzen guztiekin batera ikasi dugunarekin eta aurtengoan datorrenarekin gurutzatuta eta aktibatuta.

GURUTZATZEA
Zerbait alde batetik bestera pasatzeko moduan jartzea.

Gurutzatzen, eraldatzen eta lekuz mugiarazten gaituen bitartekaritza eredu batek pizten gaitu.

June Cresporekin egiteko modua bera asmatzen duen egite bat ezagutu genuen, desiotik, ezjakintasunetik eta konfiantzatik egina. María Jerezek proposatu zigun arreta anitz eta barreiatuaz fidatzea. Lankidetza dibergente batetik zerbait elkarrekin egitea, zer den erabat argi izan gabe. Tripak kolektiboarekin eta Sahatsa Jauregirekin batera objektuak, espazioak, erakusketak erabiltzeko eta bizitzeko moduak elkarrekin asmatzen ikasi genuen.

Espazio bizigarri eta seguruak sortze hori asteartero gertatzen da UNIK taldeko kideekin. Medialab Inklusiboko saio bakoitzean ere bai. Eta ahal dugunero gainontzeko lantegi eta proiektuetan, asmatuz-egite hori entseatuz. Izan ere, "prozesua bera da filma", Harrotu ileak eta Zine-labekin esperimentatu genuen bezala.


Eginaz egite horretan, gero eta jende gehiagok "Eskerrak etorri naizen!" oihukatzea amesten dugu, IPI Karmengo Ama eskolako Mikelek Situ-akzioak taldean jolastu zuenean egin zuen bezala.

Ikasturte honetan Tabakaleratik eskola eta elkarteei zuzentzen dizuegun eskaintza gainezka dator; 2023-24 ikasturtean gurekin lan egin duzen guztiekin batera ikasi dugunarekin eta aurtengoan datorrenarekin gurutzatuta eta aktibatuta.

AKTIBATZEA
Prozesu batean eragitea, biziagoa izan dadin.

Ikasturte honetan proposamen berri bat dakargu, Arte-Aktibazioak. Egiteko modu berri bat, aurrekoetatik ikasitakotik, erakusketak leku bizi eta partekatuago bihurtzea bilatzen duena, etaaldi berean erakusketa bakoitzean erreberberatzen geratuko dena.

Erakusketak AKTIBATZEA probatu nahi dugu, moduek GAINEZKA EGITEA bilatuz, haiek biziko dituzten gorputz guztien GURUTZATZEA eta elkar-lotze esanguratsua bideratzeko.



INFORMAZIO GEHIAGO ETA IZEN-EMATEAK
hezkuntza@tabakalera.eus
Tabakalerako informazio puntua
T. +34 943 118 855

Andre Zigarrogileak Plaza, 1
20012. Donostia

tabakalera.eus

01. TALDEENTZAKO SAIOAK

Taldeentzako saioen eskaintzak elkarrekin egon eta ikasteko aldi bakarreko saioak biltzen ditu.

Ikaskuntza-esperientzia hauetan esperimentazioan oinarrituta egiten dugu lan. Ezaguna ez zaigun zerbait taldean esperimentatzeak gure lekutik mugiarazten gaituelako; ezustekorako, jolaserako, akatserako eta galdera berrietarako aukera emanez. Baita erlazionalak diren ikaskuntza- eta bizi-espazio komunak eraikitzen jarraitzeko.

Horretarako, orotariko abiapuntuak eta esperientziak proposatzen dizkizuegu jarraian, hiru bloketan antolatuta - Tabakalerako lan-ildo eta baliabideak jarraituz. Formatu artistiko garaikideak erabiliz, gure buruaren zein munduaren ikuskera alternatiboak ezagutu eta eraikitzeko. Edota kulturara egitetik gerturatzeko; ezagutza praktikoak erdigunean jarriz, egitearen kulturak jakintza sortzen duela aldarrikatuz.

ORDUTEGIA: Asteartetik ostiralera, 10:30-14:00
PERTSONA KOPURUA: 15-25 pertsonako taldeak
IZEN-EMATEA: hezkuntza@tabakalera.eus (Gutxienez bi aste lehenago eman behar da izena. Beste ordutegi edo talde handien kasuan, galdetu)

Ikasturte honetan Tabakaleratik eskola eta elkarteei zuzentzen dizuegun eskaintza gainezka dator; 2023-24 ikasturtean gurekin lan egin duzen guztiekin batera ikasi dugunarekin eta aurtengoan datorrenarekin gurutzatuta eta aktibatuta.

01.1 ARTE-AKTIBAZIOAK

Arte-aktibazioak, erakusketek eskaintzen dizkiguten aukerak zabaltzeko lantegiak dira. Isiltasunean egotea, entzutea, arreta jartzea, espazio horietan ohikoak diren ekintzak izan arren, beste aukera batzuk AKTIBATU eta erakusketak leku bizi eta partekatu batean bihurtu ditzagun; abestu, dantzatu, formak asmatu edo hainbat modutan egon ahal izateko. Arte-aktibazioek aukera emango digute 2024-25 ikasturtean Tabakaleran egingo den erakusketa bakoitzarekin esperientzia hauek bizitzeko.

Ikasturte honetan Tabakaleratik eskola eta elkarteei zuzentzen dizuegun eskaintza gainezka dator; 2023-24 ikasturtean gurekin lan egin duzen guztiekin batera ikasi dugunarekin eta aurtengoan datorrenarekin gurutzatuta eta aktibatuta.

GABRIEL CHAILE
2024ko urriak 24 - 2025eko otsailak 2

Gabriel Chaile marrazkiengatik, ekintzengatik eta adobez egindako formatu handiko eskulturengatik da ezaguna. Hauek, kolonaurreko zeramikaren formak eta erabilerak, etxeoak zein erritualak, gogora ekartzen dituzte.

Ikasturte honetan Tabakaleratik eskola eta elkarteei zuzentzen dizuegun eskaintza gainezka dator; 2023-24 ikasturtean gurekin lan egin duzen guztiekin batera ikasi dugunarekin eta aurtengoan datorrenarekin gurutzatuta eta aktibatuta.

QUANTUM
2025eko otsailak 20 - ekainak 8

Erakusketa honek konbergentzia-espazio izan nahi du, zeinetan artistek eta sortzaileek zientziari hainbat ikuspegitatik helduko dioten.

Ikasturte honetan Tabakaleratik eskola eta elkarteei zuzentzen dizuegun eskaintza gainezka dator; 2023-24 ikasturtean gurekin lan egin duzen guztiekin batera ikasi dugunarekin eta aurtengoan datorrenarekin gurutzatuta eta aktibatuta.

SITU-AKZIOAK
2025eko apirilak 11 - abuztuak 24

Situ-akzioak artearen bidez jolasteko, zentzumenak aktibatzeko, ikasteko eta esperimentatzeko espazioak sortzen dituen proiektua da.

Ikasturte honetan Tabakaleratik eskola eta elkarteei zuzentzen dizuegun eskaintza gainezka dator; 2023-24 ikasturtean gurekin lan egin duzen guztiekin batera ikasi dugunarekin eta aurtengoan datorrenarekin gurutzatuta eta aktibatuta.

SCALA
2024ko azaroak 7 - 2025eko martxoak 9 / 2025eko martxoak 27 - ekainak 22

Musikara eta soinura hurbiltzeko dauden hamaika hizkuntza eta modu ikertzeko xedea duen instalazioa da Scala, Tabakalerako eskailera nagusian kokatzen dena.

Ikasturte honetan Tabakaleratik eskola eta elkarteei zuzentzen dizuegun eskaintza gainezka dator; 2023-24 ikasturtean gurekin lan egin duzen guztiekin batera ikasi dugunarekin eta aurtengoan datorrenarekin gurutzatuta eta aktibatuta.

01.2 SORKUNTZA-LANTEGIAK

AHOTTS BIZI
Bikoizketa lantegia

Imajinatu film bat ikustean pantaila beltzera joaten dela. Ulertuko al zenuke soinuen bitartez bakarrik? Ahots bikoizketa eta Folley teknikaren bitartez sortzaile egingo gaituen lantegi honetan, mutean geratu diren mugimenduzko irudiei esanahi dimentsio berri bat emango diegu.

Ikasturte honetan Tabakaleratik eskola eta elkarteei zuzentzen dizuegun eskaintza gainezka dator; 2023-24 ikasturtean gurekin lan egin duzen guztiekin batera ikasi dugunarekin eta aurtengoan datorrenarekin gurutzatuta eta aktibatuta.

BERDE KROMATUA
Kromaren erabilera

Lantegi honetan kroma pantaila berdearen magian murgilduko gara. Kromak ematen dizkigun aukera guztiak baliatuko ditugu bertan gure bideoklip, pasarte edo albistegiak sortzeko. Etorriko al zara Medialabek duen platoa erabiltzera?

BIDEOGILEAK
Bideo-edizioa

Ikasturte honetan Tabakaleratik eskola eta elkarteei zuzentzen dizuegun eskaintza gainezka dator; 2023-24 ikasturtean gurekin lan egin duzen guztiekin batera ikasi dugunarekin eta aurtengoan datorrenarekin gurutzatuta eta aktibatuta.

Lantegi honetan zinema-sorkuntzaren prozesuan ematen diren hainbat fase ezagutuko ditugu, gidoi bat sortu, ondoren hemen ditugun kamerekin grabatu eta azkenik, edizio lanarekin amaitu. Animatuko al zarete ikus-entzunezko ekoizpen baten bidea ezagutzera?

MUGI, GELDI, MOVIE
Animazio-lantegia

Ikasturte honetan Tabakaleratik eskola eta elkarteei zuzentzen dizuegun eskaintza gainezka dator; 2023-24 ikasturtean gurekin lan egin duzen guztiekin batera ikasi dugunarekin eta aurtengoan datorrenarekin gurutzatuta eta aktibatuta.

Stop Motion ikus-entzunezko teknika irudiak mugimenduan sortzeko animazio-aldaera klasikoenetako bat da. Lantegi honetan teknika horretan sakonduko dugu, eta sortzeko aukerak arakatuko ditugu. Edozein materialek balio du istorioak sortzeko: gure gorputzek, plastilinak, objektuek edota argazkiek, besteak beste.

Ikasturte honetan Tabakaleratik eskola eta elkarteei zuzentzen dizuegun eskaintza gainezka dator; 2023-24 ikasturtean gurekin lan egin duzen guztiekin batera ikasi dugunarekin eta aurtengoan datorrenarekin gurutzatuta eta aktibatuta.

EGIN KLIK! PHOTOKLIK!
Mugikorrarekin argazkiak egiteko lantegia

Mugikorren kamerek argazkiak egiteko teknologia aurreratua dute, baina ba al dakigu horiei etekina ateratzen? Telefonoaren kameraren bitartez argazkigintzaren oinarri orokorrak ezagutuko ditugu: diafragma, abiadura-denbora, ISO-a... eta ondoren erretratua, argazki-seriea eta mugimenduzko irudiekin ikasitakoa praktikan jarriko dugu.

**Ezinbestekoa da ikasle bakoitzak mugikorra ekartzea*

HARRI, ORRI, AR
Autoedizio lantegia

Ikasturte honetan Tabakaleratik eskola eta elkarteei zuzentzen dizuegun eskaintza gainezka dator; 2023-24 ikasturtean gurekin lan egin duzen guztiekin batera ikasi dugunarekin eta aurtengoan datorrenarekin gurutzatuta eta aktibatuta.

Autoedizioa pertsona edo kolektibo batek sortutako argitalpena da, non haren sorkuntza-prozesu osoa kontrolatzen duen. Lantegi honetan argitalpen artistiko bat sortuko dugu eta hainbat formatu deskubrituko ditugu, besteak beste, argazki-liburua, fanzinea (fan-magazina) etab.; horretarako, artisten lanak, material eta teknika ezberdinak ezagutuko ditugu.

Ikasturte honetan Tabakaleratik eskola eta elkarteei zuzentzen dizuegun eskaintza gainezka dator; 2023-24 ikasturtean gurekin lan egin duzen guztiekin batera ikasi dugunarekin eta aurtengoan datorrenarekin gurutzatuta eta aktibatuta.

IRUDI TWO
Grabatu lantegia

Irudi bat nahi adina aldiz errepikatzeko aukera ematen duten teknikak ezagutuz, paper gaineko estanpazioaren munduan barneratuko gara eta grabatuko punta lehorra teknikaren bitartez iruditegi pertsonal bat sortzeko aukera izango dugu.

Ikasturte honetan Tabakaleratik eskola eta elkarteei zuzentzen dizuegun eskaintza gainezka dator; 2023-24 ikasturtean gurekin lan egin duzen guztiekin batera ikasi dugunarekin eta aurtengoan datorrenarekin gurutzatuta eta aktibatuta.

ROBAT BI HIRU
Robotika-lantegia

Robotikaren oinarriak ezagutzen hasteko lantegia da hau. Robota eraiki ahal izateko programazioaren hastapenak landuko dira harekin jolasten garen bitartean: eman behareko urratsak pentsatu, gailua programatu eta, agindu egokiak emanez, erronkak gainditu beharko ditugu.

Ikasturte honetan Tabakaleratik eskola eta elkarteei zuzentzen dizuegun eskaintza gainezka dator; 2023-24 ikasturtean gurekin lan egin duzen guztiekin batera ikasi dugunarekin eta aurtengoan datorrenarekin gurutzatuta eta aktibatuta.

KONEKTATZEN
Elektrizitate-, elektronika- eta programazio-lantegia

Elektronikaren eta programazioaren oinarrizko kontzeptuak barneratuko ditugu, aire- edo soinu-sentsore baten eraikuntzatik abiatuta Arduino edo Scratch bezalako hardware eta software plataforma askeak erabiliko ditugu. Ekimen honen helburua sentsoreen aukerak aztertu eta hauek probatzen hastea da.

Ikasturte honetan Tabakaleratik eskola eta elkarteei zuzentzen dizuegun eskaintza gainezka dator; 2023-24 ikasturtean gurekin lan egin duzen guztiekin batera ikasi dugunarekin eta aurtengoan datorrenarekin gurutzatuta eta aktibatuta.

PLASTIK FANTASTIK
Birziklapen-lantegia

Ikasturte honetan Tabakaleratik eskola eta elkarteei zuzentzen dizuegun eskaintza gainezka dator; 2023-24 ikasturtean gurekin lan egin duzen guztiekin batera ikasi dugunarekin eta aurtengoan datorrenarekin gurutzatuta eta aktibatuta.

Ekologia pil-pilean dagoen gaia den momentuan, birziklapenak eta bigarren eskuoak modaren, arkitekturaren edota arte plastikoen esparruak hartu ditu. Kontzientzia ekologikotik egunero sortzen ditugun plastiko hondakinekin gaikako bilketa egiten ikasiko dugu, plastiko ezberdinak ezagutuz eta bereiziz. Birtziklapenetik imajina ezin ditzakegun objektuak sortu daitezkeela ikusteko aukera ere izango dugu.

Ikasturte honetan Tabakaleratik eskola eta elkarteei zuzentzen dizuegun eskaintza gainezka dator; 2023-24 ikasturtean gurekin lan egin duzen guztiekin batera ikasi dugunarekin eta aurtengoan datorrenarekin gurutzatuta eta aktibatuta.

GAME ON
Bideo-jokoak sortzeko lantegia

Bideo-jokoen ekoizpenean murgiltzeko pentsatuta dagoen lantegia da. Aitzitik, jokoa erabakiak hartzearekin, komunikazioarekin eta hausnarketarekin lotutako gaitasunak lantzen dituen fikzio bat ere bada. Beti gustatu izan zaizu jolastea baina, inoiz pentsatu al duzu zure bideo-jokoa sortu zenezakeela?

Ikasturte honetan Tabakaleratik eskola eta elkarteei zuzentzen dizuegun eskaintza gainezka dator; 2023-24 ikasturtean gurekin lan egin duzen guztiekin batera ikasi dugunarekin eta aurtengoan datorrenarekin gurutzatuta eta aktibatuta.

01.3 ZINEMARAAAA

Tabakalerako zinema-aretoa goizetan irekiko da Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko ikasle taldeei eta elkarteei zine-saioak eskaintzeko. Ikasturtean zehar hiru film proposatuko dira, ondorengo datetan:

Abenduak 12-13
Apirilak 10-11
Ekainak 5-6

Urte hauetan zine-saioetan proiektatu ditugun film batzuk abiapuntu gisa hartuta, gida pedagogikoak sortzen ari gara. Informazio gehiagorako eta gidak eskuratzeko: <https://www.tabakalera.eus/eu/zinemaraaaa/>

Ikasturte honetan Tabakaleratik eskola eta elkarteei zuzentzen dizuegun eskaintza gainezka dator; 2023-24 ikasturtean gurekin lan egin duzen guztiekin batera ikasi dugunarekin eta aurtengoan datorrenarekin gurutzatuta eta aktibatuta.

Ikasturte honetan Tabakaleratik eskola eta elkarteei zuzentzen dizuegun eskaintza gainezka dator; 2023-24 ikasturtean gurekin lan egin duzen guztiekin batera ikasi dugunarekin eta aurtengoan datorrenarekin gurutzatuta eta aktibatuta.

02. TALDEEKIN PROZESUAK

Taldeentzako saio puntualek eskaintzen diguten unean uneko harremanetik haratago, ibilbide luzeagoa duten prozesuak sustatu nahi izaten ditugu ikastetxe, elkarte eta orotariko taldeekin. Ezagutzak elkarren konpainian sortu nahi ditugulako, ukitzen gaituen horretatik abiatuta.

Ikasturte honetan Tabakaleratik eskola eta elkarteei zuzentzen dizuegun eskaintza gainezka dator; 2023-24 ikasturtean gurekin lan egin duzen guztiekin batera ikasi dugunarekin eta aurtengoan datorrenarekin gurutzatuta eta aktibatuta.

Arnas luzeagoako prozesu hauen artean, urteak daramatzagu eskolei zuzendutako proiektuak aurrera eramaten. Araututako hezkuntzatik kanpoko eragilea izanda, hezkuntza-komunitatearekin lankidetzan aritzea funtsezkoa iruditzen zaigu, elkarrekin bide berriak esploratu eta hausnarketa bateraturako espazioak sortzeko.

Bestetik, gure testuinguru hurbileko elkarte eta bestelako taldeekin hainbat prozesu eta lan-taldetan dihardugu lanean. Eta horretan sakontzen jarraitu nahi dugu; topaketa aukera berrietarako gogotsu gatoz aurten. Askotariko gurutzaketa-espazioak sortuz, normalizatua dagoenari itauntzeko eta arte- eta kultur-praktikak esplorazio-, elkarriketa- eta aukera-espazio bezala probatzeko. Oraina (eta etorkizuna) irudimen-leku itxaropentsuago batetik heltzeko.

Prozesu luzeago hauetan parte hartzeko interesa baduzue, jarraian topatuko dituzue aurten honetarako ditugun bi aukera. Abian dauzkagun haietaz gehiago jakiteko, aldiz, Tabakalerako webgunera jo dezakezue edo gurekin harremanetan jarri.

Ikasturte honetan Tabakaleratik eskola eta elkarteei zuzentzen dizuegun eskaintza gainezka dator; 2023-24 ikasturtean gurekin lan egin duzen guztiekin batera ikasi dugunarekin eta aurtengoan datorrenarekin gurutzatuta eta aktibatuta.

02.1 HIRUKIAK PROGRAMA

HIRUKIAK programa berria, hezkuntza formaleko edo ez-formaleko bi entitateren (eskolak, elkarteak edo bestelako taldeak) eta Tabakalerako hezkuntza-sailaren artean sorkuntza eta ikaskuntzarako espazio bat partekatzean datza. Hiru saioko sekuentzia pedagogiko bat diseinatuko dugu elkarrekin, parte hartzen duen talde bakoitzaren beharrei eta interesei erantzuteko. Zeharka, Tabakalerako programazioaren edukietatik abiatuta lan egingo da; dela erakusketak, dela bitartekaritza-taldeak proposatutako bestelako praktika artistiko batzuk.

Ikasturte honetan Tabakaleratik eskola eta elkarteei zuzentzen dizuegun eskaintza gainezka dator; 2023-24 ikasturtean gurekin lan egin duzen guztiekin batera ikasi dugunarekin eta aurtengoan datorrenarekin gurutzatuta eta aktibatuta.

Hiruki batean parte hartzeko interesa baduzu, izena emateko aukera irailaren 15etik urriaren 30era egongo da irekia. Informazio gehiagorako: <https://www.tabakalera.eus/eu/hezkuntza-komunitatea>

02.2 IKASGELATIK MEDIALABERA: ESKOLEKIN PROIEKTUAK

Maiatza bukaeran abiatutako deialdi honen helburua eskola esparrutik irten eta Tabakalerako Medialaben egitasmo bat gauzatzea da. Irakasleen eta Medialabeko lantaldearen artean diseinatzen da proiektua, curriculumeko gai bat eta Medialaben lan-esparruak diren artea eta pentsamendu garaikidea uztartzuz, eta guztien arteko zeharkakotasuna ere landuz.

Ikasturte honetan Tabakaleratik eskola eta elkarteei zuzentzen dizuegun eskaintza gainezka dator; 2023-24 ikasturtean gurekin lan egin duzen guztiekin batera ikasi dugunarekin eta aurtengoan datorrenarekin gurutzatuta eta aktibatuta.

Ikasturte honetan Tabakaleratik eskola eta elkarteei zuzentzen dizuegun eskaintza gainezka dator; 2023-24 ikasturtean gurekin lan egin duzen guztiekin batera ikasi dugunarekin eta aurtengoan datorrenarekin gurutzatuta eta aktibatuta.

03. ESKOLA: IRAKASLE ETA HEZITZAILEENTZAKO BALIABIDEAK

Tabakalerako hezkuntza-arloan praktikatik hausnarketara eta pentsamendutik egitera salto egiten dugu, lan-filosofia moduan. Ez ditugu bi eremuak banatu nahi, bata bestearengandik elikatzen delako. Diskurtsoak gure praktika ezin duelako jan, eta alderantziz, hezkuntza-praktikari buruz hitz egin eta ikaspenak kolektibizatzea oso garrantzitsua delako. *Eskola* hezkuntzako ikerketara zabalik dagoen gune bat da: hezkuntzako profesionalentzat eta interesa duten beste pertsonentzat (irakasleak, hezitzaileak, ikerlariak, artistak...) pentsamendu-programak eta baliabideak eskaintzea, baita testuinguruko eta nazioko sareetan lankidetzan aritzea ere.

Ikasturte honetan Tabakaleratik eskola eta elkarteei zuzentzen dizuegun eskaintza gainezka dator; 2023-24 ikasturtean gurekin lan egin duzen guztiekin batera ikasi dugunarekin eta aurtengoan datorrenarekin gurutzatuta eta aktibatuta.

IRAKASLEENTZAKO PROGRAMA
Irakasleak zarete Hezkuntza proiektuaren aliatu handienetako bat. Zuei esker dakigu zer gertatzen den Tabakaleratik kanpoko beste hezkuntza-guneetan. Zuekin partekatzen ditugu gure errealtateak eta ikasleenak, haien gatazkak, interesak, eskola-curriculumaren birak, lan-metodologia desberdinak, lorpenak eta hezkuntza-praktika kontziente eta eraldatzaile batek dakartzan zailtasunak.

Gure jardueraren hasieratik Tabakalerako hezkuntza-arloa eta hezitzaileak elkarrekin aritu gara lanean. Arteaz eta pedagogiaz elkarrekin pentsatzeko eta hausnartzeko bidea eginez, estrategia eta egiteko modu desberdinak esperimentatzeko lekua eraikiz, eta, batez ere, lankidetza-gune aberasgarri eta atsegina bilatuz.

Ia hamar urteko ibilbide honetan hainbat aukera eta formatu probatu ditugu. Oraingoan, 2024-25 ikasturterako programa **uztailean** garatuko den prestakuntza-bloke trinko batean bilduta etorriko da. Ikasturte hasieran jakinaraziko dira programa honen xehetasun eta datak.

Ikasturte honetan Tabakaleratik eskola eta elkarteei zuzentzen dizuegun eskaintza gainezka dator; 2023-24 ikasturtean gurekin lan egin duzen guztiekin batera ikasi dugunarekin eta aurtengoan datorrenarekin gurutzatuta eta aktibatuta.